

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Gure ideia sandaliatik botara edo botatik sandaliara alda daitekeen oinetako da. Oinetakoaren azpi aldean duen botoia sakatuz, sandalia estaliko duen oihal zati bat ageriko da, bota bilakatuz eta alderantziz, berriz ere botoia sakatuz gero. Beste botoi bat ere badu, hau sakatuta kolorea aldatuko duena. Modu honetan, gure oinetakoak egokituko ditugu era batera edo bestera (sandalia edo bota) inguruko tenperaturaren arabera.

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure ideiarekin lortu nahi duguna da, gure bezeroei erosotasuna eskaintzea, oinetako bakarrak bi erabilera izanik. Gutxien espero duzun momentuan, oinetako aproposak izatera igaro zaitezke, eta gainera nahi duzun kolorean, jantzita daramazun arroparen arabera.

Gure produktuaren balio nagusia ideia berritzaile bat eskaintzea denez, ez du konpetentzia handirik gaur egungo merkatuan. Erabilerraza gertatuko zaienez bezeroei, bere prezioa ez zaie gehiegizkoa irudituko, kontuan izanda bi zapata pare erosi beharrean, bakarrean edukiko dituztela bi aukerak.